ASMOZ TA JAKITEZ

EUSKO IKASKUNTZA

Riev 1907-2007 100 URTE

2007 urria/octubre/octobre
Nº 182 zenb.

# Las Obras Completas de Juan Garmendia Larrañaga, en Internet

## Eusko Ikaskuntzak, Gipuzkoako Foru Diputazioaren laguntzarekin, irakurketa askean jartzen du etnografo eta historialariaren produkzio ikaragarria Eusko Ikaskuntza eta Euskomedia plataformetan

A finales de 2003, Eusko Ikaskuntza firmó un Convenio con el antropólogo e historiador Juan Garmendia Larrañaga al objeto de crear un fondo reuniendo la totalidad de obras y archivos del veterano investigador. A partir de esa cesión, Eusko Ikaskuntza recabó el apoyo de la Diputación Foral de Gipuzkoa para poner la totalidad de la producción científica de Juan Garmendia Larrañaga a la libre disposición de todos los internautas a través de Eusko Ikaskuntza y su Fundación Euskomedia.

Tras un largo y concienzudo trabajo de digitalización, ordenación y remaquetación, los nueve tomos hasta hoy publicados de las Obras Completas de Juan Garmendia Larrañaga ya están accesibles desde www.euskomedia.org/garmedia y www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/garmendia. En total, son 53 monografías y más de 300 artículos escritos por el antropólogo tolosarra a lo largo de su dilatada y prolífica trayectoria que en su edición papel superaban las 6.000 páginas.

Todos los trabajos se publican en sus versiones originales (bilingües euskera-castellano en buena parte) y con las imágenes de los ilustradores que han colaborado en la edición de los libros de Juan Garmendia Larrañaga. Asimismo dispone de función de búsqueda que rastrea cualquier término por la totalidad del texto.

En breve, Eusko Ikaskuntza publicará el décimo tomo de estas Obras Completas que posteriormente se volcará también en la Red.

**Contenidos**

Para la edición digital se ha respetado la misma estructura de las Obras Completas originales. Los textos se distribuyen en:

***Artesanía***: Entre otros trabajos, se incluyen los tomos de *Euskal eskulangintza / Artesanía vasca*, obra de referencia para los estudios etnográficos.

***Carnaval***: Se recogen, íntegramente, los cuatro libros ya "clásicos" escritos por Garmendia Larrañaga sobre los carnavales en Euskal Herria.

***Fiestas***: Dos largos estudios monográficos sobre los ciclos festivos de verano e invierno, y otro sobre las tradiciones solisticiales unidas a la celebración de San Juan Bautista.

***Juegos***: Monografías, en euskera y castellano, con repertorio de juegos infantiles.

***Mitos y Leyendas***: Mitos, leyendas, personajes fabulosos dentro de la tradición popular, pensamiento mágico vasco, conjuros, etc.

***Etnografía***: Ensayos sobre diversos aspectos de la vida tradicional vasca; una monografía sobre el Valle del Roncal y otra en torno a la figura del *morroi* o criado.

***Medicina Popular***: Otros títulos clásicos de Juan Garmendia Larrañaga sobre rituales y plantas en la medicina popular vasca.

***Ritos Funerarios***: Costumbres y ritos funerarios en el País Vasco desde el siglo XVI.

***Léxico Etnográfico***: Tesis doctoral de Juan Garmendia Larrañaga.

***Historia***: Textos de contenido histórico, buena parte referidos a Tolosa y su comarca. Se incluye también un ensayo histórico-etnológico sobre el mendigo, así como diversas biografías o glosas sobre personajes históricos.




# Eusko Ikaskuntzak Euskal Herriko flora eta faunari buruzko dokumentu funts handiena biltzen du

12.000 orri baino gehiago eta 10.000 argazki inguru dauzka ADEVE, Asociación para la Defensa de las Especies en Vías de Extinción -Eusko Jaurlaritzak herri onurakotzat aitorturiko- elkarteko argitalpen funtsak, zenbait hilabete barru osorik kontsultatu ahal izango dena Eusko Ikaskuntzako Euskomedia Fundazioaren web gunean.

Joan den urriaren 1ean, Josemari Velez de Mendizabal, Eusko Ikaskuntzako gerenteak, Fernando Pedro Pérez, ADEVEko Lehendakariak eta Arantza Cuestak, Euskomediako zuzendari gisa (argazkian), Internet bidez Naturaren kultura zabaltzeko eta bioaniztasunaren azterketa eta ezagutza bideratzearren erakunde biek sinaturiko hitzarmena aurkeztu zuten komunikabideen aurrean.

Hitzarmena betez, Eusko Ikaskuntzak, bere Euskomedia Fundazioaren bidez, zabaldu egingo du, inolako interes komertzialik gabe, ADEVEren funts bibliografiko osoa, zeinak gaur egun euskaraz idatzitako 84 argitalpen dauzkan, Euskal Herriko lurreko zein itsasoko fauna eta florari eta bertako naturgune guztiei buruzkoak. Era berean, datu baseari erantsi egingo zaizkio bi aldizkarion ale guztiak: *Naturaren Ahotsa,* elebiduna, eta *Euskal Herriko Natura*, bi hilabetean behin euskaraz argitaratzen dena. Etengabe hazten ari den funtsa izanik, etorkizunari begira, ADEVEk sortuko dituen eduki zientifikoak eransten joatea aurreikusi da.



**Natura sustatzea**

Josemari Velez de Mendizabalek aurkezpenean adierazi zuenez, "Sare bidezko naturaren zabalkunde eta azterketari dagokionez, euskal erreferentzia handia izateko bokazioarekin sortzen da hitzarmen hau". Inolako kosturik gabe bideratuko den informazio bolumen handiak erabilera garrantzitsua izan dezake, batez ere hezkuntzaren munduan. Era berean, eduki horiek hitzarmena sinatu duten Udalei formatu desberdinetan eskaintzea aztertzen ari da Eusko Ikaskuntza.

Jadanik, *Euskonews Gaztea* aldizkaria hasi egin da material horiek bere asteko aleei eransten eta, funts horretan oinarriturik, naturari buruzko lanak egitera bultzatzea izango du etorkizun hurbileko helburu. Hori guztia naturaren kultura zabaltzeko eta horren ezagutza gizarte osoarengana bideratzeko eta aldez aurreko eta funtsezko premisatzat harturik natura aintzat hartu, zaindu eta kontserbatzeari begira.

**Acuerdo con ADEVE**

El fondo más completo existente sobre flora y fauna en Euskal Herria ya está accesible, de manera libre y gratuita, en euskomedia.org.

www.eusko-ikaskuntza.org / www.euskonews.com

# Accord et bourse

*Laguardiako Udala Hitzarmena sinatu dutenen arteko 82.a da. Horrek jarduera zientifiko eta kulturala gauzatzeko ahalbidea emango dio, Urnietarako iragarri denaren antzekoa.*

**Rioja alavesa**

El 16 de noviembre en Laguardia Eusko Ikaskuntza presentará a los Ayuntamientos de La Rioja alavesa su catálogo de acciones en el ámbito local.

## Firma en Laguardia

El 21 de septiembre el Ayuntamiento de Laguardia firmó con Eusko Ikaskuntza un Convenio de colaboración cultural y científica que tendrá su concreción a lo largo de los próximos años en diversas realizaciones. Previamente al acto, en el que tomaron parte Mª Jesús Amelibia, alcaldesa de Laguardia, el Presidente de Eusko Ikaskuntza Javier Retegi y la Vicepresidenta por Alava Mª Nieves Urrutia, el Comité Ejecutivo celebró su reunión ordinaria en el Ayuntamiento de la localidad.

Con este ya son 82 los convenios de colaboración establecidos con Ayuntamientos para el desarrollo de actividades culturales y científicas, 16 de ellos en territorio alavés.

## Emakumeak Urnietan

XX. mendean zehar hiri horretako emakumeen historia aztertzearren Eusko Ikaskuntzak eta Urnietako Udalak iragarritako beka, Iñigo Imaz eta Mertxe Tranche bazkideen alde erabaki da. Bi historialariok urtebetean zehar egingo dute lana: lehen buruan, dokumentazioa bilatuko dute hainbat artxibotan eta prentsa hustuketa eta kontsulta bibliografikoaren bidez; gero, esperientzia eta bizipenak dituzten pertsonak elkarrizketatuko dituzte. Azterlana hainbat historia alditan egituratuko da, Berrezartzetik (1875) gaur arte, eta era horretara mende bat baino gehiagoan emakumeari buruz izandako ikusmoldeen bilakaera bilduko du.



# José Miguel de Azaola

El 8 de septiembre en Alcalá de Henares falleció José Miguel de Azaola, a quien Eusko Ikaskuntza reconoció en 2000 con el Premio Manuel de Lekuona.



Nacido en Bilbao en 1917, cursó estudios de Derecho y desarrolló la mayor parte de su carrera profesional en el ámbito de la promoción del libro, primero desde el Consejo Superior de Investigaciones Científicas, del Instituto Nacional del Libro Español y más tarde como funcionario de la Unesco en París. Europeísta desde su primera juventud, ha sido considerado como una de las personas que más hicieron en España por la difusión de la idea de una Europa unida.

Azaola es autor de una amplia obra escrita que abarca desde la historia a la política, del arte a la música o la novela, además de una nutrida producción en torno a Miguel de Unamuno. Lugar destacado en su quehacer intelectual ocupó el País Vasco, sobre el que reflexionó en varias obras como *Vasconia y su destino* (1972-1976) y *El País Vasco* (1988).

**Bio-bibliografía**

Próximamente Eusko Ikaskuntza publicará la bio-bibliografía de José Miguel de Azaola dentro de su colección "Premio Manuel de Lekuona".

# Cours à Baiona

Le 17 septembre a commencé à la Faculté Pluridisciplinaire de Baiona une nouvelle édition du Cours Public de Droit Basque conduit par Maïté Lafourcade, Professeur émérite d'Histoire du droit à l'Université de Pau et des Pays de l'Adour.

Tout au long du Cours Public de Droit Basque, qui compte 26 heures réparties en 13 cours, on analyse la condition des personnes et régime des terres, droit de la famille et institutions publiques en Iparralde sous l'Ancien Régime.

# Carte institutionnelle

La nouvelle carte annuelle de membre d'Eusko Ikaskuntza reconnaît l'état de chercheurs des titulaires et leur permet de bénéficier de remises et de tarifs spéciaux.

Jusqu'à maintenant il y a huit musées et espaces culturels qui reconnaissent la carte d'Eusko Ikaskuntza : Musée Maritime Ría de Bilbao, Miramón Kutxaespacio de la Ciencia de Donostia, Fundación Catedral Santa María de Gasteiz, Valle del Hierro-Fundación Lenbur de Legazpi, Euskal Museoa/Musée Basque de Bilbao, Ferrería de El Pobal de Muskiz, Musée Romano Oiasso de Irún et D'Elikatuz. Centre de l'Alimentation et Gastronomie de Ordizia. Plus d'informations sur la web de la Société : eusko-ikaskuntza-org, dans l'épigraphe *Qui sommes-nous*.




# Programación en ocho radios

Eusko Ikaskuntza estará presente en la nueva tempora radiofónica con espacios y programas en ocho emisoras: Radio Vitoria y Araba Irratia en Alava, Bizkaia Irratia e Indautxu Irratia en Bizkaia, Euskalerria Irratia y Onda Cero en Navarra, Herri Irratia en Gipuzkoa, y desde Radio Euskadi en programación abierta.

Los programas, en euskera o castellano, abordan temas de interés general relacionados con la cultura, la ciencia y la sociedad, invitando a especialistas y divulgadores. Además, se ofrece información sobre las actividades de Eusko Ikaskuntza.

Esta temporada se tocarán nuevos temas en diversos formatos, se dará voz a los oyentes, habrá sorteos de libros, etc. Para conocer nuestra programación y las novedades incorporadas, animamos a escucharnos y hacernos llegar vuestras sugerencias.

**Entzulearen gutunontzia**

Iradokizunak edo iritziak jakinarazi nahiko dituzten entzuleek helbide honetara idatz dezakete: gasteiz@eusko-ikaskuntza.org, edo telefono honetara deitu: 945-231552.

# Liburu nobedadeak

*Deux nouveaux titres s'ajoutent au fonds éditorial d'Eusko Ikaskuntza : dans la collection Lankidetzan et un numéro de plus de la revue juridique* Eleria.

## Eleria, 15

*Eleriaren* 15. zenbakia ale berezia da. Zuzenbidearen gaineko gogoeten iturburuak izan dituzte aditiuek ardatz, Zuzenbidearen fenomenoari buruzko hausnarketa egiten duten oinarrizko testuen bila. Zuzenbidearen Teoriei buruzko bilduma honen ardura José Ignacio Lacasta, Zuzenbidearen Filosofiako Katedradunak eta Joxerramon Bengoetxea Oñatiko Nazioarteko Soziologia Erakundearen Zuzendariak izan dute. Egungo Zuzenbidearen giltzarri diren oinarrizko testuak aukeratu eta hitzaurre mamitsu baten bitartez azaltzen dira bilduma honetan.




## Bermeo: Guerra Civil

El número 43 de la colección Lankidetzan publica la investigación *Bermeo y la Guerra Civil. La Batalla del Sollube* de Francisco Manuel Vargas Alonso. Este estudio analiza las transformaciones políticas, socioeconómicas y culturales producidas en la villa de Bermeo durante la guerra.




En una segunda parte se detalla el desarrollo de la Batalla del Sollube, enfrentamiento librado en tierras de Bermeo y localidades vecinas que se prolongó durante medio mes y se saldó con millares de víctimas.

# Artes y Letras

*Après l'été deux journées ont été célébrées : l'une sur les peintures de Gazeo et l'autre sur l'aspect littéraire de Bilbao.*

## 40 años de Gazeo

El domingo 9 de septiembre se celebró en Gazeo una Jornada conmemorativa del 40 aniversario del descubrimiento de las pinturas murales de su iglesia de San Martín de Tours, organizada por Eusko Ikaskuntza y el Ayuntamiento de Iruraiz-Gauna. Ante un público numeroso que siguió con interés todo el programa, por la mañana hubo dos charlas introductorias por Pedro Luis Echeverría Goñi y José Javier López de Ocáriz, profesores de Historia del Arte. Por la tarde se realizó una demostración práctica de la técnica de la pintura mural a cargo del fresquista vitoriano David Mouta.



## Bilbo eta literatura

Irailaren 25ean Bilbori buruzko XII. Sinposiuma egin zen, Eusko Ikaskuntzak antolatua Bilboko Udalaren eta BBK-ren babesarekin. *Bilbo eta bere literaturak* izan zen gertaldi honen gaia. Ehun bat pertsonak jarraitu zituzten hamalau adituk emandako hitzaldiak, Bilboko literatura bizitzaren hainbat alderdiri buruzkoak: autoreak, gaiak, liburuak, joerak… José-Carlos Mainer, Zaragozako Unibertsitateko katedradunak eman zion hasiera Sinposiumari, Ramón de Basterrari buruzko hitzaldi baten bidez. Komunikazio guztiak argitaratzekoak dira Bidebarrieta Kulturgunea bildumaren barrenean.



## Jakiunderen eraketa

**Donostia: urriak 25*

**25 de octubre**

Ese día se constituye en Donostia Jakiunde, Academia de las Ciencias, Artes y Letras

Urriaren 25ean Jakiunderen lehen bilera burutuko da. Aurreneko aldiz aurkituko dira, aurrerantzean Eusko Ikaskuntzaren Zientzia, Arte eta Letren Akademia osatuko duten lehen kideak. Jakiunderen aurkezpen publikoa Gipuzkoako Aldundiaren Jauregian egingo da, eta bileran, besteak beste, Jakiundeburua den Pedro Miguel Etxenikek. Akademiaren nondik norakoak azalduko ditu. Ekitaldian, Jakitunei egiaztagiriak banatuko zaizkie.

Jakiunderen Arautegiaren arabera, lehen hogeita bost Jakitun Oso hautatu dira Akademiaren hastapen hauetan, eta beste horrenbeste Supernumerario. Hemendik aurrera, Jakiundek berak izendatuko ditu kideak. Horretarako, Eusko Ikaskuntzan ordezkaturik dauden lurraldeek eta jakintza eremuek ordezkaritza orekatua izan dezaten ahalegina egingo da, eta baita Jakiunden arian-arian genero oreka lortzen saiatuko da.

## Premio El-CL

**Acto de entrega*

El 20 de noviembre en Donostia tendrá lugar la solemne ceremonia de entrega del Premio Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral a Gregorio Monreal Zia. Como en años anteriores, el acto estará presidido por el Lehendakari del Gobierno Vasco junto con los presidentes de Eusko Ikaskuntza y Caja Laboral.



El jurado del Premio El-CL, en su fallo dado a conocer el pasado mes de junio, señaló, entre otras cualidades del premiado, "su larga trayectoria investigadora y docente, y su influencia en los apartados jurídicos, históricos y, en general, culturales de Vasconia".

## Nafarroako Bazkideen Eguna

**Iruñea: azaroak 22*

Azaroaren 22an, Iruñeko Tres Reyes Hotelean, bizikidetasunezko ekitaldi bat egingo da eta horretara gonbidaturik daude Eusko Ikaskuntzako nafar bazkide guztiak. Bertan gorazarre egingo zaie Elkarteko bazkide gisa 25 urte bete dituztenei, eta ongietorria egingo zaie berrikiago bazkidetu direnei.

Sixto Jiménez, Lurraldeko Lehendakariordeak eta Javier Retegui Lehendakariak hitz batzuk esango dituzte eta, era berean, zilarrezko ezteiak betetzen dituzten 70 bazkide baino gehiagoren ordezkari batek hitza hartuko du. Azkenik, koktel eta animazio saio batez amaituko da jardunaldia.

## Prix El-Ville de Bayonne

**Fin du délai*

Le 15 octobre s'achève le délai de présentation des candidatures et des films en compétition aux Prix Eusko Ikaskuntza-Ville de Bayonne. Le Double Prix Culture Basque est destiné d'une part à encourager l'auteur d'un ouvrage scientifique ou culturel récent. D'autre part, il vise à honorer une personne ayant œuvré de façon particulièrement significative pour la culture basque ou la science en Iparralde. On octroie également un Prix pour la meilleure vidéo documentaire ou le meilleur reportage sur un aspect de la vie au Pays Basque ou plus spécifiquement sur la Ville de Bayonne.



*Cérémonie de remise du Prix El-Ville de Baiona 2006.*

## Bioetika

**Hilabeteko monografikoa*

Jadanik 400 ale baino gehiago plazaratu dituen *Euskonews & Media* astekariak Bioetikari eskaini dio urriko monografikoa.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailarekin lankidetzan buruturiko ale honek Carlos María Romeo Casabona, Deustu eta Euskal Herriko Unibertsitateen Unibertsitate arteko Zuzenbide eta Giza Genoma Katedrako Zuzendariari egindako elkarrizketa dakar.

*Gaiak* sailean ondoko artikuluak ageri dira:

- "¿Qué es la Bioética?" (Antonio Casado da Rocha)
- "Biomedikuntzaren gaineko lege berria" (Itziar Alkorta)
- "La regulación de los OMG: un espacio necesitado de entendimiento" (Leire Escajedo)
- "La selección de embriones: planteamiento ético jurídico" (Aitziber Emaldi Cirión).

## Azaroko jardunaldiak

*Cependant que se déroulent divers forums académiques durant ce mois d'octobre, les Sections scientifiques préparent de nouveaux rendez-vous pour cet automne.*

### Jornadas de Proyéctica

**CC. Sociales y Económicas*

La decimotercera edición de las Jornadas de Proyéctica están programadas para los días 29 y 30 noviembre en Bidart y Donostia, respectivamente, organizadas por Estia y la Sección de Ciencias Sociales y Económicas de Eusko Ikaskuntza. En esta edición se estudiarán las organizaciones compejas, la innovación, el movimiento, los proyectos y las competencias emergentes. La lengua oficial de las Jornadas será el inglés.

Las mejores comunicaciones se publicarán en la revista *Cognitiques/Cognitics* editada par el Institut de Cognitique de la Universidad Victor Ségalen Bordeaux 2.

### Gasteiz: conferencias

**17 y 31 de octubre*

El tercer y quinto miércoles de octubre en la sede de Eusko Ikaskuntza de Gasteiz (General Alava, 5-1º) se van a celebrar sendas conferencias sobre temas de interés cultural. El día 17 Gonzalo Arroita y Juan Ignacio Lasagabaster, Directores Gerente y Técnico respectivamente de la Fundación Catedral Santa María, hablarán sobre el proyecto de restauración de la catedral gasteiztarra (en la foto) desde el punto de vista de la ejecución y de la gestión. El día 31, será José Andrés Álvaro Ocariz quien intervenga sobre la familia de los Borgia. Ambas charlas comenzarán a las 7.30 de la tarde.



### Ikerketarako laguntzak

**Azaroaren 30a arte*

Urtero bezala, Eusko Ikaskuntzak Ikerketarako Laguntzak banatzen ditu talde edo banakako proposamenen artean. Eskabideak azaroaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira helburu horretarako dauden inprimakietan, eta ondokoak erantsi: eskatzailearen/eskatzaileen curriculum vitae laburra; lanari buruzko txosten xehea, bertan azalduko direla: proiektuaren izenburua eta egileak, materiala eta metodologia, baliabide tekniko eta azpiegitura erabilgarriak, lan egitasmoa eta hori egiteko aurreikusiriko epea; eta gastuen aurrekontu xehea.

### Hiri Antropologia

**Azaroak 22-24*

Azaroaren 22tik 24ra, Bizkaiko Batzar Nagusien Hitzaldi Aretoan, Bilbon, Hiri Antropologiaren III. Jardunaldiak egitekoak dira, *Hiri globalak eta tokiko kulturak* izenburuarekin.

Azaroaren 22an, Michel Agier irakasleak (Institut de Recherche pour le Développement, Paris) *Incertitude urbaine et innovations rituelles. Anthropologie des hors-lieux* gaiaz hitz egingo du. Ondoko egunean, Josepa Cucó i Giner irakasleak (Valentziako Unibertsitatea) ondoko hitzaldiari ekingo dio: *Los movimientos urbanos en la ciudad de Valencia: contexto y caracterización*. Azkenik, azaroaren 24an, larunbata, F. Xavier Medina (Bartzelonako Ramon Llull Unibertsitatea) ondoko gaiaz arituko da: *La construcción social del espacio urbano: reflexiones sobre las migraciones vascas hacia Barcelona en el siglo XX*.

**Ciudades**

Durante las Jornadas de Antropología Urbana se presentarán comunicaciones sobre el tema *Ciudades globales y culturas locales*.



### Curso sobre Arqueología

**Ciencia y Tecnología*

La Fundación Asmoz de Eusko Ikaskuntza ha organizado, juntamente con la S.C. Aranzadi, un Curso semipresencial sobre Ciencia y Tecnología aplicadas a la Arqueología. Con 350 horas de duración, el Curso tiene una vertiente teórico-práctica (a través de Internet y clases presenciales los viernes por la tarde) y otra práctica de participación en excavaciones arqueológicas (100 horas).

El objetivo es formar al alumnado en las modernas técnicas de la investigación en arqueología. El curso comenzará el 27 de octubre. Para más información en el 943212369 o arkeonet.asmoz.org.

**15 empresas e instituciones**

que operan en el ámbito de la arqueología colaboran en este Curso.



# Eusko Entziklopedia: XXI. mendeari aurre egiteko egitasmoa



**Iñaki Martínez de Luna**

*Eusko Entziklopediako zuzendaria*

Aski ezaguna da Euskomediak interneten eskaintzen duen Bernardo Estornés Lasa-Auñamendi Entziklopedia eta, ezaguna ez ezik, oso erabilia dela ere gogoratu behar da. Izan ere, entziklopedia horrek Euskal Herriko toponimi, pertsonai, arte, erakunde, abizen, lexiko eta abarrez jakin-mina duten edonorentzat hainbat informazio egoki eskaintzen du, musu-truk.

Entziklopedia horrek eduki egoki eta interesgarriak eskaintzen dituen arren, baditu ere zenbait gabezia eta hutsune nabarmen:

1. edukiak erdaraz baino ez daude;
2. hainbat ahots edo edukiak zaharkituta daude;
3. hainbat ahots edo edukiak desegokiak izan daitezke;
4. egun beharrezkotzat jotzen diren zenbait arlo edota eduki ez daude bertan jasota.

Horretaz jabetuta, Eusko Ikaskuntzak ezinbestekotzat jo zuen halako edukiak ahalik eta gaurkotuen zein osatuen eta euskaraz eskaintzea, gizarteak gaur egun eskatzen duen bezala. Hortaz, esandako hutsuneak betetze aldera, beste produktu bat sortzea erabaki zen, 2006an: Eusko Entziklopedia (EE), hain zuzen. Betiere, euskal gizarteak (edo horren sektore batzuek) duen (duten) halako produktu baten premia lehenbailehen asebetetzea bilatuz.

Dena den, EEren edukiak osatzeko ez da hutsetik abiatuko, horien iturburu nagusia Bernardo Estornés Lasa-Auñamendi Entziklopedia izango da-eta. Zehatzago, EEren bizkarrezurra osatuko duten elementuak honako hauek izango dira:

1. Egun interneten zintzilik dagoen Bernardo Estornés Lasa-Auñamendi Entziklopedia.
2. Ahots edo boza berritu edo gaurkotuak.
3. Ahots edo eremu berriak.

Hala ere, Bernardo Estornés Lasa-Auñamendi Entziklopediatik harantzago, bestelako material eta eduki-iturri batzuk ere hartuko dira kontuan, EEren nolabaiteko osagarri gisa: a) Euskomediak dituen beste material osagarriak; b) Eusko Ikaskuntzaren jardunean etenik gabe sortzen ari diren eduki berriak.

Euskomediaren material osagarriei dagokienez, berez EEko materialak ez izan arren, ahots batzuetan sakontzeko baliagarriak izan daitezke, gehigarri gisa estekatuta edo linkatuta, betiere EEtik kanpoko EUSKO IKASKUNTZAREN DATU BASE ENTZIKLOPEDIKOkoak [EIDBE] direla argi utzita.

> **«La 'Eusko Entziklopedia' se nutrirá del inmenso fondo documental de Eusko Ikaskuntza»**

Bestalde, Eusko Ikaskuntzak sortzen duen informazio berriak EEra bideratu ahal izateko, zehar-lerroko irizpideak ezarri beharko dira Eusko Ikaskuntzaren ekoizpengintzan: dirulaguntzetan, Euskonews-eko artikuluetan, Sailen jardunetan, Jardunaldien materialaetan...; alegia, Eusko Ikaskuntzaren jardunean etenik gabe sortzen ari diren eduki berriak EEn bertan txertatzea bilatuko litzateke, horretarako Eusko Ikaskuntzaren ekoizpen zientifikoko eduki batzuk baliatuz eta EErako egokituz. Asmo hori gauzatzeko, zenbait urrats ari da ematen, besteak beste Sail Zientifiko, RIEV, Euskomedia, Argitalpen Batzorde eta abarreko arduradunak EEren dinamikara horretara erakartzeko.

Hortaz, eduki berrituak, gaurkotuak, elebidunak eta dinamikoak (etenik gabe elikatuko baita) eskainiko dituen aldetik, EE ahalegin erraldoia eskatzen duen asmoa ere bada; baita horretarako behar diren baliabideak ere.

Finantzabidea behin ziurtatuta -Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari zein Euskadi eta Nafarroako Aurrezki Kutxen Federazioari esker-, 2007-2009 denbora tartean asmoa burutzeko erronka gure -Eusko Ikaskuntzako kideon- esku geratzen da, erantzule nagusia lerro hauen sinatzailea izanik.

## Agenda

**Urria / Octubre / Octobre**

- 6: Treviño. Presentación del Archivo fotográfico del Ayuntamiento del Condado de Treviño
- 9: Bermeo. Presentación del libro *Bermeo y la Guerra Civil. La Batalla del Sollube*
- 15: Fin de admisión de candidaturas y vídeos al Prix Eusko Ikaskuntza-Ville de Baiona
- 17: Gasteiz. Conferencia sobre la restauración de la catedral de Santa María
- 19: Comité Ejecutivo y Comisión Académica de la Junta Permanente
- 20: Bilbao. Jornadas El Folklore en los audiovisuales / Folklorea Ikus-Entzunezkoetan
- 24-26: Deusto. II Jornadas de Lingüística vascorománica
- 25-26: Iparralde. IV Seminario Internacional Euskal Herria Mugaz Gaindi
- 25: Constitución de Jakiunde-Academia de Artes y Ciencias
- 31: Gasteiz. Conferencia: "Los Borgia, algo más que una familia"

**Azaroa / Noviembre / Novembre**

- 10: Urraul Bajo. Presentación de *El Ferrocarril de Irati*
- 15: Laguardia. Encuentro con los ayuntamientos de La Rioja alavesa
- 16: Comité Ejecutivo
- 20: Donostia. Entrega del Premio Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral
- 22: Iruñea. Día del Socio en Navarra
- 22-24: Bilbao. III Jornadas de Antropología Urbana. Ciudades globales y culturas locales
- 27: Iruña. Presentación del libro *Olentzeroren tradizioa Lesaka eta Euskal Herriko Eguberritan*
- 29-30: Bidart-Donostia. Jornadas de Proyéctica
- 30: Fin de admisión de propuestas para Ayudas a la Investigación

**Abendua / Diciembre / Décembre**

- 1: Asamblea extraordinaria
- 14: Comité Ejecutivo y Junta Permanente

## LIBURUAK

**Arau hierarkia eta egitura politikoa Euskal Autonomia Erkidegoan: zenbait problematika**

LOPEZ DE TEJADA, Patxi
Erroteta: 2007




Lan honek estatu autonomikoaren diseinuan, eta bereziki euskal autonomia erkidegoaren eraketa juridikoaren ondorioz planteatu diren arazo batzuk ditu aztergai. Lehenengo atalak autonomia estatutuen zuzenbide iturrien sisteman izandako sarrera ikertzen du, piramide juridikoan hartu zuen kokapena eta zer nolako efektu hierarkikoak eragin zituen beste arauekiko. Bigarrenean beste gai bat argitzen saiatzen da: estatuak konstituzioaren arabera gordetako ahalmen araugileen erabileran emandako oinarrizko legeriak non topatzen duen muga autonomia erkidegoek sortutako garapen legeriarekin, oinarrizkoa zertan datzan azkenean. Hirugarren zatiaren gaia foru arauen izaera da, berreskuratze foralaren unetik herrialde historikoetako batzar nagusiek sortzen duten arau mota berri hori legeak, araudiak edota tertium genus bat ote diren eta, hauen kasuan ere, zer motatako sarrera izan duten eta izan dezaketen ordenu juridikoan.

**El viaje de la identidad y el nacionalismo vasco en Iparralde (1789-2005)**

AHEDO GURRUTXAGA, Igor
Gobierno Vasco: Vitoriaz, 2006




Este trabajo, que obtuvo el premio "Realidad Social Vasca" en 2005, realiza una aproximación a la evolución del sentimiento de pertenencia y del nacionalismo vasco en Iparralde desde la Revolución francesa hasta nuestros días, analizando variables del ámbito de las políticas públicas, los movimientos sociales, la antropología social, la economía social, etc. El trabajo se centra en demostrar la hipótesis del surgimiento de una nueva "identidad Pays Basque", que sirve de apoyo para el desarrollo de la identidad y el nacionalismo vasco desde los años 90 del siglo XX. De la mano de esa nueva identidad toma peso el territorio que aparece, junto a la cultura y la lengua, como elemento importante y que favorece el auto-reconocimiento, primera etapa de todo desarrollo identitario.

**Argitaratzailea:** Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA. **Secretario Técnico de Publicaciones: Jose Angel Ormazabal.**- L.G.: SS-1056/92. ISSN 1133-9861. **Inprimategia**: Juaristi. Itziar
**Harpidetzak**: Asmoz ta jakitez etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:
**Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak:** Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA. Tel. 943-310855. Fax 943-213956. E-mail: ei-sev@eusko-ikaskuntza.org. **Arabako Bulegoa:** General Alava, 5-1º. 01005 GASTEIZ.Tel. 945-231552. Fax 945-148752. E-mail: gasteiz@eusko-ikaskuntza.org. **Bizkaiko Bulegoa:** María Díaz de Haro, 11-1. 48013 BILBAO. Tel. 94-4425287. Fax 94-4414650. E-mail: bilbo@eusko-ikaskuntza.org. **Nafarroako Bulegoa:** Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D. 31001 IRUÑEA. Tel. 948-222105. Fax 948-211737. E-mail: iruna@eusko-ikaskuntza.org. Ordutegia: Astelehenetik ostegunera 8:30etik 14:00etara eta 15:30etik 18:00etara; ostirala, 8:00etatik 15:00etara. Horario: De lunes a jueves de 8,30 a 14 y de 15,30 a 18 h.; viernes de 8 a 15 h. **Iparraldeko Bulegoa:** 51 quai Jauréguiberry. 64100 BAIONA. Tel. 559598290. Fax 559461844. E-mail: eusko-ikaskuntza1@wanadoo.fr. Ordutegia: Astelehenetik ostegunera: 8:30etik-12etara eta 15:00etik-18:00etara. Ostirala: 8etatik-12etara. Du lundi au jeudi: 8:30 à 12:00 et le vendredi de 8:00 à 12:00.